

FUNTSEZKO JARDUERAK:

Gure negozio-ereduak ondo funtziona dezan beharrezkoak izango ditugun funtsezko ekintzak produktuaren hasierako pentsamendutik saldu artekoak dira.

Lehenik proiektua ondo planteatu beharra dago. Produktuarekin arazorik gabe edo arazo minimoekin egiteko hasierako planteamendua oso garrantzitsua da. Gainera, proiektuan beharrezko diren tresna eta laguntzak planoan identifikatu behar dira. Hasieratik planteamendu erreza eta garatu batekin dena azkarrago eta etenik gabe sortzea posible da.

Bigarrenik, plangintzan adostutakoa martxan jartzea dator. Hori da pentsatutako proiektua fisikoa egingo duen fasea. Fase honetan ikusiko da ea plangintza ondo eginga eta garatua den edo arazoa handiegia delako plangintza aldatu beharra dagoen. Sekzio honetan arazoak eta zailtasunak agertzea oso normala da eta arazoa txikia denean, konpontzeko posibilitatea egon arren, onartu behar da hau bezalako proiektu handi batean, akats txikiek kostu handiak eragiten dituztela, eta beraz, gaizki planifikatutako arazo handiek, praktikan, geure proiektua bigarren aukerarik gabe utziko lukeela.

Bukatzeko, proiektua amaitutakoan, merkaturatzea eta saltzea falta da. Fase honetan marketineko abildadeak erabili behar dira. Fase horretara iristerako iruditzen zaigu geure Funtsezko elkarteetan behar adinako konfiantza eskuratua izango genukeela, eta arazo hau beraiantzat ez litzatekeela gainditzen zaila izango, aipatutako enpresak horretan ere oso trebeak direnez.